



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo



Nor gara? Zer egiten dugu?



www.emakunde.euskadi.eus



Nor gara?

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoa da, berdintasunerako politikak diseinatu, bultzatu, haien inguruan aholkatu, koordinatu eta ebaluatzen dituena, bai eta gizartea sentsibilizatzen duena ere, Euskal autonomia-erkidegoko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorra lortzeko xedez.

Zer egiten dugu?

Erakundeak bi jardute arlo nagusi ditu: alde batetik, administrazio publikoekin burututako lana, berdintasunaren aldeko egiturak sendotzeko eta politika publikoetan generoaren ikuspegia txertatzeko neurriak martxan jar daitezen bultzatzekoa; bestetik, gizartearekin oro har egiten duen lana, emakumeen ahalduntzea bultzatuz, enpresetan berdintasuna egotea sustatuz, emakumeekiko indarkeria prebenitzeko neurriak hartuz, diskriminazio kasuetan aholkularitza eta defentsa eskainiz, bai eta gizartea berdintasunaren alde sentsibilizatuz ere.



**LANDU
BERDINTASUNA**

• **Berdintasuna politika publikoetan**

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez, erakunde publikoen politikak (osasuna, hezkuntza, ekonomia, enplegua, kultura, gizarte zerbitzuak, segurtasuna, hirigintza...) bultzatu, haien inguruan aholkatu, koordinatu eta horien jarraipena egiten du Emakundek. Horretarako, arauak lantzen ditu, emakumeen eta gizonen egoeran horiek izan dezaketen inpaktuaren gaineko txostenak ematen ditu, berdintasunaren alde lan egiten duten instituzioen arteko sareak eta hainbat batzorde koordinatzen ditu, toki administrazioen berdintasunerako diagnosi eta planak diruz laguntzen ditu, berdintasunaren aldeko gobernantza sustatzeko materialak lantzen ditu eta berdintasunaren inguruko prestakuntza eskaintzen du, besteak beste.

• **Berdintasuna enpresa eta erakundeetan**

Enpresek eta bestelako erakundeek, beren barne antolakuntzan zein eskaintzen dituzten zerbitzuetan, berdintasunaren inguruko politikak sar ditzaten bultzatzen du Emakundek. Aholkua eta diru-laguntzak ematen dizkie horiei berdintasunaren diagnosis eta planak egiteko, gainera, arlo horrekiko hartu duten konpromisoagatik nabarmentzen diren erakundeei bereizgarria ematen die urtero. Halaber, erakunde desberdinen berdintasunaren aldeko sinergiak sor daitezzen bultzatzen du, foroen, lankidetzaren sareen eta bestelako ekimenen bidez.



Emakumeak greban

Etzeko l...
eta zaintza-lan...
em...
eg...

• Eskubideen defentsa

Emakundearen ardura da herritarrak defendatzea esparru pribatuan gertatutako sexu-bereizkeria egoeretan, Arartekoak, sektore publikoari dagokionez, arlo horretan bertan burutzen duen lanarekin osatzen baita. Aholkuak ematen ditu, ikerketak burutu, ofizioz zein interesdunak eskaturik, negoziazioak bideratzen ditu, bai eta gomendioak egin ere, bazterkeria egoerak edo baztertzeko jardunak zuzentzeko.

• Ahalduntzea eta parte-hartzea

Euren bizitzetan eragina duten desberdintasunen gainean emakumeek kontzientzia har dezaten bultzatu eta haien ahalduntze pertsonala, taldekoa zein soziopolitikoak sustatzen du Emakundek, emakumeen elkarteei aholkularitza tekniko eta laguntza ekonomikoa eskainiz, genero ikuspegia izango duten sareak sortzeko laguntza emanez, Gobernuaren sektore organoetan parte hartze aktiboa izaten lagunduz, eta Emakundeko Aholku Batzordea bezalako egituren bidez, politikan parte hartzeko egitura baita.



Ella no tiene tiempo para sí misma.

• Emakumeen aurkako indarkeria

Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko programak bultzatu, esku-hartze politikak proposatu, mota horretako indarkeria pairatzen dituzten emakumeei arreta ematen dieten zerbitzuak -gobernuko sailek, foru eta toki erakundeek zuzenean emandakoak, beren eskumenekin bat- koordinatu eta ebaluatzen ditu Emakundek.

• Balio aldaketa

Emakundek jardunaldi, ikastaro eta mintegiak burutzen ditu, bai eta kanpainak, foroak eta komunikazio ekintzak ere, gizartea sentsibilizatu eta emakumeen zein gizonen arteko berdintasuna sustatuko duten balioen aldaketaren alde kontzientzia har dezan, hori eragozten duten rolak eta estereotipoak desagerraraztearen alde, hain zuzen. Era berean, azterlanak eta estatistikak lantzen ditu, argitalpenak egin eta genero harremanak aztertu eta ikertzeko lanean, zein gizartean duen intzidentzia, aholkua ematen du. Gainera, erakundeak publizitatearen zein komunikazioaren esparruetan ematen diren sexu-bazterkeria mota guztiak ezabatze lan egiten du, Begira, publizitate eta komunikazio ez sexista erabiltzeko aholku batzordearen bidez.

Hemen gaude:

Manuel Iradier, 36 • E-01005 Vitoria -Gasteiz • Tel: (34) 945 016 700
emakunde@euskadi.eus • www.emakunde.euskadi.eus

